



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Herritarrentzako informazioa

13 eta 17 urte bitarteko Uda Gazte Jolasak

Zein da helburua?	Ermuko gazteei aisialdiko eta denbora libreko jardueren programa bat eskaintzea ekainaren 30tik uztailaren 4ra eta uztailaren 7tik 11ra
Norentzat da?	2008ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako gazteei zuzenduta dago
Baldintzak	Ermuan errolatutako pertsonak lehentasuna izango dute
Zer organok erabakitzen du?	Gazteriako zinegotzi ordezkaria
Zer unitatek tramitatzen du?	Hezkuntza, kultura, gazteria eta kirol alorrak. Kultura eta Gazteria Unitateak
Nola eman hasiera	Pertsona interesdunak eskatuta
Noiz aurkeztu behar da eskaera?	Maiatzaren 21etik ekainaren 4ra bitartean
Administrazio-isiltasunaren eragina	Ez da aplikatzen
Tasak ordainketak	23. ordenantzan ezartzen den bezala, aste bakoitzak 80€-ko kostua izango du; izena 2 asteetarako emango balitz, kostua guztira 160€-koa izango litzateke. Halaber, familia ugariko kidea izanez gero edo anai-arreba bat baino gehiago izena emanez gero, 40€-koa izango da astero (bakoitza), izena ematen duten aste kopurua edozein dela ere. Kutxabank: ES54 2095 4408 50 9110990751
Oharrak	- Asteko plaza-kopurua 20ra mugatua dago. Aurkeztutako eskabideen kopuruak aurreikusitako muga gainditzen badu, zozketa publikoa egingo da ekainaren 9an, 9:00etan, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, - Emaizta udal webguneko iragarki-taulan argitaratuko da. - Pertsona bakoitzak eskabide bat aurkeztu ahal izango du, aste bakar bat edo biak aukeratzen dituela.
Tramitatzeko bideak	-Ermuko Egoitza elektronikoan (www.ermua.eus): Abiapuntu/Udal tramitazioa/tramiteak -Abiapuntu /aisialdia Konbentukoa, 3 Astelehenetik ostiralera: 8:00etatik 14:30etara
Babesteko lege organikoa betetzea	Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan

aurreikusitako ondorioetarako, zure datuen tratamenduari buruzko informazio hau ematen zaizu:

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

Inprimakian emandako informazioa Ermuko Udalaren titulartasunekoa da. Helbidea: Baldespina markesa 1, Ermua (Bizkaia)

Informazio gehiago nahi izanez gero, honako bitarteko hauen bidez egin dezakezu edozein kontsulta:

- Telefonoa: 943179010
- Posta elektronikoa: abiapuntu@udalermua.net
- DBO identifikatzea: kalitate-teknika
- DBO kontaktua: mgutierrez@udalermua.net

HELBURUA

Ermuko Udalean interesdunek ematen diguten informazioa lantzen dugu, Uda Gazte Jolasak programaren jarduerak kudeatzeko.

LEGITIMAZIOA

Datu pertsonalen tratamenduaren legitimazioa interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzean edo emandako botere publikoak baliatzean oinarritzen da, Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan esandakoaren arabera.

HARTZAILEAK

Zure datuak jarduera egin behar duen erakundeari laga ahal izango zaizkio, baina, betiere, datuen erabilera emandako baimenera mugatuz.

ESKUBIDEAK

Edonork du eskubidea Ermuko Udalean beraiei buruzko datu pertsonalak tratatzen ari garen ala ez baieztatzeko.

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta datu okerrak zuzentzeko eskatzeko ere, edo, hala badagokio, ezabatzeko eskatzeko, baldin eta, beste arrazoi batzuen artean, datuak jada beharrezkoak ez badira bildu ziren helburuak betetzeko, eta indarreko legeria betez.

Egoera jakin batzuetan, interesdunek beren datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute; kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez dira gordeko.

Egoera jakin batzuetan, eta beren egoera partikularrekin zerikusia duten arrazoiengatik, interesdunek beren datuak tratatzearen aurka egin ahal izango dute. Ermuko Udalak datuak tratatzeari utziko dio, premiazko legezko arrazoiengatik edo erreklamazio posibleak gauzatzean edo defendatzean izan ezik.

Halaber, interesdunak eskubidea du Ermuko Udalari eman dizkion datu pertsonalak formatu egituratu batean jasotzeko, guztiek erabiltzeko moduan eta makinaz irakurtzeko moduan. Azken eskubide hori honako salbuespenek mugatuko dute: eskubide honen xede diren datuak interesdunak emandakoak izatea; Ermuko Udalak bere datuak modu automatizatuan tratatzea (bitarteko informatikoak)